


## ONRAITA-SANTA ELENA-ONRAITA

### Iturrietako ibilbide borobila



### Kokapena

Ibilbideak Arabako Mendialdea eskualdeko lurraz zeharkatzen ditu, Iturrietako mendiak hain zuzen. Santa Elena (1.111 m.) eta Soil (1.110 m.) mendi-gainetatik doa, altuera handian baina Iturrietako goi lautadaren batzbesteko altuera maila kontutan hartuz aldapa leunekin.

Iturrietako mendiak goi lautadan kokatutako muino leun multzo batek osatzen ditu. Kare harrizkoak dira eta troke ugari sortzen dira. Lautadako eta bailaretako mugan (Maeztu, Musitu, Antoñana) amildegi eta aitzarte sakon ikusgarriak ditu. Arabako Lautadatik ikusita Ekialde-Mendebalde norabideko harresi baten tankera du, non eskubiko eta ezkerreko mugak Azazeta eta Opakuako mendateak diren. Arrigorristaren atzetik, Santa Elena da mendi lerro honen punturik altuena. Inguru honetako urak Musitu ibaira doaz Igoroin aitzartetik. Santa Elena eta Soil gainen azpian Alaiza eta Gereñu herriak ikusten dira.

Onraita Arraia-Maeztu udalerrian dago, eta Arabako herririk altuena da (967 m.). Eskualdeko eguraldiaren ezaugarriak negu luzeak eta izoztaldi berantiarak dira. Lurren erabilera nagusia abeltzaintza da, nahiz eta patata, oloa eta sekalea ere erein. Euriak 1.200 mm.koak dira, Lautadakoak (Gasteiz ingurukoak) baino 400mm. handiagoak.

### Landaretza eta fauna

Toki honetako landaretza pagadia da. Pagadi irekia da lurraren sakonera txikia eta harkaitzen agerpena dela eta. Onraitako inguruan lur sailak dira nagusi. Inguru honetan katajineta, azkonarra eta basurdea bizi dira. Horietaz gain beste ugaztun txikiak daude; satitsuak, sagutxuak, satorrak, muxarrak eta abar. Hegazti ugari ere badaude; harrapakarien artean putreak eta saizuriren bat eta basoko txoritxoaren artean txonta arrunta, txantxangorria eta kaskabeltzak.

## IBILBIDEA

Ibilbidea egiteko merezi du zero garbi eta behelainorik gabeko egun bat aukeratzeak. Era honetan gailurretik ikusten den ikuspegi ikusgarriaz gozatu ahal izango dugu; **Elgea, Urkila, Aitzkorri eta Altzania** iparraldean eta herri txikiz ziprztindutako **Arabako Lautada** azpian.

**0 Km. / 0 or. 0'** Gure ibilbidea **Onraitian (Erroetan)** hasten da. Herrira sartzea ez da beharrezkoa. Kotxea edo autobusa baskularen ondoan dagoen txokoan, aintzira txikiaren ondoan uzten da. Hemen Ipar norabideko pista hartu behar dugu, mendirantz. Askotan lokaztuta dago abere ugariaren bidea ere delako. Lehor ez dagoenean deseroso suertatzen da ibiltzea.

**1 Km. / 0 h. 10'** Hamar minuturen buruan, burdinezko hesi bat gurutzatu behar dugu eta belardian barneratu. Tokiak ez du argi erakusten bidearen jarraipena eta une batez desagertu deneko sentrazioa ematen du. Hesitik 50 metrotara basorantz ibiliz hartuko dugu berriro bidea. Ipar norabidea jarraituz berehala **San Juan mendateraino** iritsiko gara. Nahi izanez gero beherako bidea har daiteke **Egileor** herrira jaisteko, Lautadan.

**2 Km. / 50'** Hala ere gure ibilbideak mendebalderantz egiten du. Mendatetik oso gertu **San Juan hilarria** dago eta metro batzuetara **San Juan baseliza** garai batean egon zen tokian gurutzeta. Gurutzearen ezkerretatik ateratzen bidexkari jarraituz **San Juan trikuharrira** iritsiko gara. Oso egoera kaskarrean kontserbatzen da eta harlauza handi bat besterik ez da ikusten. Toki honetatik aurrera bideak ez du galtzerik. Amildegia gure eskubitara mantendu behar dugu.

**3,5 Km. / 1 h. 10'** **Soil** gailurra basoaren erdian zuhaitzik gabeko zelai batean kokatuta dago eta **Santa Elenaren** altuera berdina du. Bidea jarraitzeko harkaitz batzuren oztopoa aurkituko dugu, baina badaude bi bidexidor, elkarren ondoan, zailtasunik gabe jeisteko. Mendebalderantz jarraituko dugu pagadi ederrean zehar.

**4,5 Km. / 1 h. 30'** Igoera txiki baten ondoren **Santa Elena** gailurrera iritsiko gara. Geodesi punta dago eta bere ondoan gurutze txiki bat. Burdinezko txafila bat iltzatuta dauka " En recuerdo de la ermita de **Santa Elena** que aquí existió y desapareció entre 1764 y 1768" inskripzioarekin. Iparraldeko ikuspegi ederrari erreparatu ondoren mendilerrotik behera jarraituko dugu ordu laurden batean **Luzkando mendateko** alanbre hesiaren ondora iritsi arte.

**7,5 Km. / 2 h. 40'** Hesia zeharkatu eta lursailen artean dagoen pistatik jarraituko dugu. **Sarributxi** urmaelatik gertu pasatuko gara. Eliztrizitate linea agertuko zaigu eta gure pistak beste zabalago batekin bat egingo du. Gero ezkerretara egingo du. Berehala **Onraitia** aurrez aurre edukiko dugu. Ezkerreko pista hartzen badugu herriaren erdira sartuko gara, eliza eta garbitokiaren ondora kotxetik oso gertu.

**9 Km/ 3h 15'** **Onraitia**

Nahiz eta maiz Sakana edo Barga toponimoak Nafarroako eskualdearekin lotu, izen hauek ere Onraitian agertzen dira, amildegian; "Chacan" eta "Basacan" eta Bargachoste". Beste toponimo batzuk Egillor eta Ullibarri majadak kasu artzain erabilpena salatzen dute.